

---

# EROAPENA

---

Nekeak artu ta pakez ta pozez eroatea esan nai dau itz zoragarri onek. Ainbat eta ainbat lagun ezagutu ditugu andra ta gizonen artean era onetako personak. Iraiñak eta burleak artu ta ixilik, eroan izan ditue ainbeste lagunek euskaldun artean bertan. Obeto eretxi eutson neke onek, bakez, artzeari geure Egillearen izenean. Sinismena deika eukan ta guztion Aitaren eskuetan, berez berez, izten eben samin ta arazo ori.

Bein baten, urte batzuk kartzelan egindako gizon bateri bere lagunak esaten eutsoen: Baiña zuk zelan izten dautsazu bakean ainbeste neke jasan eragin deutzun gizonari...? "Ni ez naz iñor jokabide ori epaituteko, guztien Aitak emongo dautso zor jakon saria gizona,". Sinismena ederra da ta sinismendun askok jakatu dabe bide jator orretatik.

Tamalgarria da nekepean ta samin artean bizi bearra, baiña eroapenez era orretan jokatu dabenak bizitzan, gizadiari argitasun aundiak emon dautsez ta egizko poztasunaren ateak edegi ditue.

"Zorionekoak negar dagienak, poztuak izango dira ta" Jesusek esan eutson munduari.

Itxura baten gogorra dirudi onu edo kontseju onek. Baiña aundikeriz ta arrokeriz urko laguna zapaltzen ibili ta betirako ondatzea baiño, obe izango da, nekeak eroapenez eroan ta lagun—arte eder baten, beti, zorionsu bizi izatia. Poz arek deadar egingo dau eroapena goratuz, neke geiago jasan izan ba—neu, orain eta amai barik asmetan dodan zoriontasunean bizi izateko.

Jesusen beste onu edo kontseju on bat gogoratu bear dogu. Iñor izan ba da zuzen, ongille ta sinisgarririk Jesus izan zan ori, biziaren jaubea izanik, mundutar guztiak gaitik bizia emon ta berbiztu zana. Ara, gure betiko pozerako zer dirauskun. "Zorionekoak izango zare zuek nigaitik iraindu ta aurrian erabili zagiezanian ta guzurrez zuen aurka 'nai dagiena esan dagienean. Poztu zaitez: zuen saria aundia izango da" Mt 5, II-12.

Biziaren jaubeak ez dau ikusi nai munduan ez zapaltzailerik ta ez zapaldurik, baiña gaiztakeri ori jazoko dan ezker, jazarpenduen alde dago. Orreri emon nai dautso indarra egia aurrera atera dagien, munduari argi egin dagioen zuzentasunaren bidez.

Gizon aberats bat ba zan jai aundiak egiten ebazana baita Lazaro izeneko beartsu bat be aberatsaren ate

ondoan, zauriz beterik, etxunda egoten zana. Aberatsaren maitik jausten zana, ase nai eban. Txakurrak be etorri ta zauriak miazkatuten eutsoezana. Olako goi—be negargarriak munduan asko dirata, askok eta askok negarra dabe bizitza gidari. Egilleak ez dau nai olakorik bere seme—alaben artean, baiña era orretan jokatu dan ezkeroz, Lazarotarrei dirautse, zuena da betiko argia ta poza.



### MAITEENAK

Eroapena nai dau  
biziaren jaubeak  
zoritar artean;  
bizitza beartsuak  
zoriondu nai ditu  
beti—iraunean.

Jaunak maiteenak ditu  
saminpeko semeak  
apal jokaturik;  
orreik nai dauz zoriondu  
zerutar eztaietan  
graziz indarturik.

PAULIN